

aupe  
gazteok!

# BIXKOR<sup>da</sup>, MUSIKAREN TEORIAKO TXAKURRA!



**G:** Bixkor maitea:

Ulertzen dut zergatik lotu behar ditugun makoak marrekin (konpaseko antolaketa erakusteko) baina ba al duzu erritmo konplexuagoentzako aholkurik?

--M. L., Lekeitio (Bizkaia)

**E: GUAH!\***

**\*ITZULPENA:** MARRAZ LOTUTAKO NOTEN MULTZOAK NEURRIA ADIERAZTEKO MODU BAT BEZALA ERABILI BEHAR DIRA. ERRITMO SINPLEETAN

NAHIKO ERRAZ LORTU DAITEKE HAU; EGIN BEHARREKO GAUZA BAKARRA MAKODUN NOTAK (KORTXEAK EDOTA LABURRAGOAK DIRENAK) KONPASEKO ALDI BAKOITZAREN IRAUPENA DUTEN MULTZOETAN PILATZEA DA.



**ERRITMO KONPLEXUETAN,** BESTALDE, ZAILTASUNAK AGERTU DAITEZKE... **SINKOPA** EDO **KONTRADENBORAKO** NOTAK AZALTZEN BADIRA POSIBLE DA NEURRIA MODU EGOKIAN ADIERAZTEKO NOTAK ZATITU BEHAR IZATEA, EDOTA **LIGADURA LERROEKIN** LOTU BEHAR IZATEA. ZORIONEZ, **PAUSUZ-PAUSU** EGIN EZKERO EZ DA OSO ZAILA BIHURTZEN!

HAR DEZAGUN ERRITMO  
HAU ADIBIDE BEZALA,  
MOMENTUZ MAKOK  
LOTU GABE DITUENA.




## 1. PAUSUA:

AURKITU ERABILI DEN BALIORIK LABURRENA ETA BETE KONPAS GUZTIA MOTA HORRETAKO NOTEKIN, ALDI BAKOITZEKO MULTZO BAT OSATUZ.



## 2. PAUSUA:

JATORRIZKO ERRITMOA BERDINTZEKO BESTE LIGADURA LERRO GEHITU. ZIHURTATU LOTUTA DAUDEN NOTEN MULTZO BAKOITZA HASIERAKO ERRITMOAREKIN BAT DATORRELA!



BAI, BADAKIT ITXURA  
ARRAROA DAUKALA...  
BAINA ORAINDIK  
EZ DUGU BUKATU!

JATORRIZKO ERRITMOA:

## 3. PAUSUA:

**LIGADUREKIN ETA MAKOEKIN, BIEKIN,** LOTUTAKO NOTA **GUZTIAK** AURKITU ETA ORDEZKATU **BALIOKIDEA** DEN NOTA BAKAR BATEKIN.



LIGADUREKIN EDO  
MAKOEKIN LOTUTAKO  
NOTAK AURKITZEN  
BADITUZU (BAINA EZ **BIAK**  
ALDI BEREAN), ORDUAN,  
UTZI DAUDEN BEZALA!



EZ  
IKUTU!



ESKU HORIEK,  
GELDI!



AURRERA BAI...  
SINPLIFIKATU!

**ERA EGOKIAN LOTUTAKO ERRITMOEK LIGADUREN BAT IZATEA OSO**  
**ARRUNTA DA, BETI ERE KONPASEKO ALDI BAKOITZA ARGI ETA GARBI**  
**ADIERAZIZ... ETA HONEK, ALDI BEREAN, MUSIKARIEI PARTITUREN**  
**IRAKURKETA ERRAZTEN DIE!**

# BETI DA DIBERTIGARRIA BIXKORRI JARRAITZEA!